

**1575/2016 EBAZPENA, abenduaren 14koa, Osakidetza zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Alaitz Yoldi Mitxelena andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako Idazkari Akademikoa izendatu da, izendapen aske bidez.**

1412/2016 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako Idazkari Akademiko lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak deialdian izena eman duenaren hautagai bakarraren ukanbeharrak betetzen diren berrikusi, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Alaitz Yoldi Mitxelena andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako Idazkari Akademikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

## **EBATZI DUT**

Lehena.- Dña. Alaitz Yoldi Mitxelena andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako Idazkari Akademikoa.

Bigarrena.- Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2017ko urtarrilaren 1a.

Hirugarrena.-Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 14an



Zuzendari nagusia

Jon Joseba ETXEBERRIA CRUZ

**RESOLUCIÓN 1575/2016, de 14 de diciembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra, mediante libre designación, a D<sup>a</sup> Alaitz Yoldi Mitxelena Secretario/a Académico/a en la Escuela Universitaria de Enfermería de Osakidetza-Servicio vasco de salud.**

Mediante Resolución 1412/2016 se convocó la provisión, mediante libre designación, del puesto de Secretario/a Académico/a en la Escuela Universitaria de Enfermería de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Efectuada por la Comisión la comprobación de requisitos de la única participante, así como la correspondiente propuesta de nombramiento, y a la vista de los conocimientos académicos y profesionales que concurren en D<sup>ña</sup>. Alaitz Yoldi Mitxelena, procede efectuar su nombramiento, mediante libre designación, como Secretario/a Académico/a en la Escuela Universitaria de Enfermería de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre,

## **RESUELVO**

Primero.- Nombrar a D<sup>ña</sup>. Alaitz Yoldi Mitxelena Secretario/a Académico/a, en la Escuela Universitaria de Enfermería de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Segundo.- El presente nombramiento surtirá efectos el día 1 de enero de 2017.

Tercero.- El personal nombrado para puestos de trabajo por el procedimiento de libre designación podrá ser cesado con carácter discrecional por el órgano que efectuó el nombramiento. El cese o la remoción supondrá el traslado a otro puesto funcional, manteniéndose en todo caso las condiciones propias de la categoría que ostente el interesado, efectuándose la adscripción a puesto de las mismas características y preferentemente en el mismo ámbito organizacional y territorial que venía ocupando con anterioridad a su nombramiento. La adscripción tendrá efectos del día siguiente al de la fecha de cese y se efectuará conforme al procedimiento que se fije en Osakidetza. Deberá reunir todos los requisitos y condiciones exigidos para la provisión del puesto.

Cuarto.- Notifíquese la presente resolución a la interesada y a la Subdirección de Recursos Humanos.



**Osakidetza**

Quinto.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2016

El Director General de Osakidetza  
Jon Joseba Etxeberria Cruz

